

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

131/2019 Foru Agindua, maiatzaren 7koa, baimentzen duena María del Carmen Rojo Pitillas izendatzea Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko maiatzaren 23ko ebazpen baten bidez, Aiarako Udalean zerbitzu eginkizunetarako izendatu zen María del Carmen Rojo Pitillas gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario eta Casasimarroko Udaleko (Cuenca) idazkari lanpostuaren titularra, Aiarako Udaleko lanpostu horren titular Naiara Lazpita zerbitzu eginkizunetan joan baitzen Trapagarango Udalera, hango idazkari lanpostua betetzeko.

2018ko lehiaketa bateratua ebatzi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 188/2019 Erabakia betez, María del Carmen Rojo Pitillas esleitu zitzaion Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostua, eta 2019ko maiatzaren 3an jabetu zen lanpostuaz, udal horrek zuzendaritza honetara bidalitako lanpostuaz jabetzearen aktan jasotakoaren arabera.

Hori dela eta, Aiarako Udalak iragarki bat argitaratu zuen 2019ko apirilaren 3ko ALHAOn (41. zk.), gaikuntza nazionaleko funtzionarioek eskaerak aurkez zituzten bost egun balioduneko epean, lanpostu hori behin-behineko izendapen bidez, eginkizun metaketaz edo zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Udal interesdunak jakinarazi du udal horretako idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko eskaera egin duela María del Carmen Rojo Pitillas gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen eskalako karrerako funtzionario eta Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuaren titularrak.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 51. artikulua honako hau xedatzen du:

“1. Autonomia erkidegoetako organo eskumendunek zerbitzu eginkizunak egiteko aukera emango diete haien lurraldean destinoa daukaten gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioei, lurralde barruan zerbitzuak eman ditzaten, azpieskala berean nahiz desberdinean, toki erakundeetan haientzat gorderiko lanpostuetan, gehienez ere urtebeteko epean (beste urtebetez luzatu ahalko da), baldin eta ezin izan bada behin-behineko izendapen bat egin, eta ezintasun hori nahikoa egiaztatuta gelditu bada espedientean.”

Arabako Foru Aldundia da zerbitzu eginkizunen izendapenak egiteko erakunde eskuduna Arabako Lurralde Historikoan, 128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Errege Dekretu horren 51. artikulua beraren 4. apartatuak hau ezartzen du:

“4. Aurreko kasu guztietan administrazio interesdunak eskatuko du zerbitzu eginkizuna, eta funtzionarioak zerbitzuak ematen dituen erakundea ados egon beharko da”

Aiarako Udalak eskaera igorri du eskatzeko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko izenda dadila María del Carmen Rojo Pitillas gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario eta Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuaren titularra, 2019ko maiatzaren 3tik aurrerako ondorioekin.

Eskaerarekin batera, Rojo Pitillas andrearen idazki bat bidali da, zeinean adierazten baitu ados dagoela zerbitzu eginkizunen izendapen horrekin; bai eta Erriberabeitiko Udalaren idazkia ere, zeinak zerbitzu eginkizun horren aldeko txostena eman du.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aiarako Udaleko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko izendatzea María del Carmen Rojo Pitillas gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionario eta Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuaren titularra, 2019ko maiatzaren 3tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen hori gehienez ere urtebeterako izango da. Epe hori iraupen berdineko beste epe batez luza daiteke, baldin eta lanpostuaren titularra ez bada bere lanpostura itzultzen.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Aiarako Udalari, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 7a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren
eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ